AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

781

HUTSEN ZUZENKETA, honako erabaki honena: «Erabakia, 2013ko urtarrilaren 3koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia izendatzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 3ko Erabakiaren testuan (2013ko urtarrilaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 13. zk.). Erabaki horren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia izendatzen da. Hori dela-eta, zuzenketa hauek egin behar dira:

– Euskarazko bertsioan, 2013/13 (3/2) orrialdean, laburpenean, honela dio:

«ERABAKIA, 2013 urtarrilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia izendatzen duena».

Baina honela esan behar du:

«ERABAKIA, 2013ko urtarrilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zuzendari nagusia izendatzen duena».

– Euskarazko bertsioan, 2013/368 (1/1) orrialdean, idazpuruak honela dio:

«ERABAKIA, 2013 urtarrilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia izendatzen duena».

Baina honela esan behar du:

«ERABAKIA, 2013ko urtarrilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zuzendari nagusia izendatzen duena».

– Euskarazko bertsioan, 2013/368 (1/1) orrialdean, lehenengo puntuan, honela dio:

«Lehenengoa.– Jon Joseba Etxeberria Cruz jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusi».

Baina honela esan behar du:

«Lehenengoa.– Jon Joseba Etxeberria Cruz jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zuzendari nagusi».